

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERNEDOKO UDALA

#### **Euskara ikasteko 2018/2019 beka deialdia eta kultura, kirol, euskara. berdintasun eta gizarte-sustapenaren arloko dirulaguntzetarako deialdia**

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 26ko bilkuran, dirulaguntza deialdi hauen oinarriak onetsi zituen:

- Euskara ikasteko laguntzen 2018/2019 ikasturteko deialdia.
- Kultura, kirol, euskara, berdintasun eta gizarte-sustapenaren arloko dirulaguntzetarako 2019ko deialdia.

Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, argitaratu egiten dira:

#### **2018-2019 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdiaren oinarriak**

1. Xedea: 2018ko urrian hasi eta 2019ko irailean amaituko den ikasturtean euskara ikasketak egiten laguntzeko beka ematea, bai eta udako ikastaroak eta barnetegiak egiteko ere (joan-etorrietarako gastuak ez dira sartzen, ez eta mantenua eta ostatua ere barnetegietara joanez gero).

2. Euskara ikasteko beka eska dezakete hamasei urtetik gorako pertsonak, baldin eta ikastaroa hasi baino lehen eta ikastaroan zehar etenik gabe Bernedon erroldatuta badaude. Egindako ikastaro edo barnetegi adina beka eska daitezke.

3. Bekaren zenbatekoa: bekaren zenbatekoa matrikula kostuaren edo ikasketa gastuen ehuneko 50 artekoa izan ahal da, gehienez. Edonola ere, beka ezin izango da izan 250 euro baino gehiago eskatzaileko eta urteko.

4. Aurrekontu kreditua: 1.000 euro, 335.480.000 aurrekontu aplikaziokoa.

5. Dirulaguntza esleitzeko bete behar diren baldintzak: eskatzaileek laguntza eskuratzeko, gutxienez, eskolen ehuneko 75era joan direla egiaztatu beharko dute edo, hala behar denean, matrikulatuta dagoen ikastaroa (edo ikastaroak) gaingitu izana egiaztatzen duen euskaltegiaren, ikastegiaren edo erakunde ofizialaren agiria aurkeztu.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna: eskatzaileek udalaren laguntzak eta beste batzuk eskura ditzakete, baina bi horien guztien baturak ezingo du gaingitu ikastaroaren matrikularen kostua.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

7. Aurkeztu beharreko eskabideak eta dokumentazioa: eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Beka eskaera egitean:

– Inprimaki ofiziala; udal bulegoetan emango da, eta hartan helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo eskatuko den adierazi behar da.

– NANaren fotokopia.

– Eskatzailearen aitortpena, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela adierazten duena (eredua).

– Matrikularen egiaztagiria, euskaltegiak edo ikastegiak emana. Barnetegien kasuan, xehakatu egingo dira irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak.

– Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.

b) Ikasturtea bukatutakoan:

– Eskolen ehuneko 75era joan izanaren egiaztagiria, euskaltegiak emana, edo matrikulatuta egon den ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

– Helburu bererako beste laguntzaren bat jaso bada, hura egiaztatzen duen agiria.

8. Eskabideak aurkeztea eta epeak: laguntza eskaerak eta agiriak 2019ko irailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Ikastaroa bukatu izanaren frogagiriak, eskoletara joan izana edo ikastaroa gainditu izana egiaztatzen dutenak, 2019ko urriaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira.

9. Eskabideak aztertu eta haiei buruz ebaztea: Euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu eskabideak. Alkateak aurkeztu diren eskaeren inguruko dekretua emango du, teknikariaren txostenak zer dioten jakin ondoren.

10. Azken xedapena: oinarri hauetan xedatu gabekoetarako, honako hauek hartuko dira kontuan: Udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza; herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legea; Dirulaguntzen Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa.

### **Kultura, kirol, euskara, berdintasun eta gizarte-sustapenaren arloko dirulaguntzen oinarri arauak - 2019**

#### **1. Deialdiaren xedea**

Laguntzea, aurrekontu mugen barruan, dirulaguntzak ematen Bernedoko udalerrian 2019an egiten diren kultura, kirol, euskara, berdintasun eta gizarte-sustapeneko jarduerak antolatzeko.

#### **2. Erakunde onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kultura, kirol eta gizarte elkarte edo talde publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabekoak, legez erata edo erregistratuta badaude eta egoitza soziala Bernedoko udalerrian badute.

#### **3. Diruz lagundu daitezkeen programak**

Dirulaguntza hauek, nagusiki, izango dira Bernedoko udalerrian egiten diren kultura, kirol, euskara, berdintasun eta gizarte sustapeneko jardueretarako, eta hauek izango dute lehentasuna:

– Bernedoko udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.

– Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen dutenek.

– Herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenek.

– Udalerria bera sustatzen dutenak.

– Kultura, kirola eta euskara hedatzeko eta sustatzeko jarduerak baliatzen dituztenek.

– Kirola eta kultura eskueran izatea laguntzeko jarduerak diseinatzen dituztenek.

– Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bermatzen duten jarduerak eta/edo ekintzak sustatzen dituztenek, eta/edo pertsona behartsuenen edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenen parte hartzea eta gizarteratzea bermatzen dituztenek.

– Bertako tradizioak berreskuratzea sustatzen dutenek.

#### 4. Aurrekontu kreditua

Aurrekontu esleipena bi aplikaziotan dago: 4.000 euro 334.481.001 partidan eta 2.000 euro 341.481.000 partidan.

#### 5. Dirulaguntzen zenbatekoa

Udalak, aurrekontua gauzatzeko udal arauan ezarritakoarekin bat etorritik, aurrekontuaren ehuneko 25eraino lagundu ahal izango ditu diruz programak, 2.000 euroko muga izango dela.

Dirulaguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gainfinantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien dirulaguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino handiagoa.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin daiteke izan Bernedoko Udalak bere aurrekontu orokorrean helburu horietarako partidetan ezarritako kopurua baino handiagoa.

Zenbatekoa aztertuko da aintzat hartuta zenbat eskaera egiten diren eta zenbateko hornidura dagoen aurrekontu partidan.

#### 6. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak eta zazpigarren oinarrian zehazten diren agiriak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 28an amaituko da.

2. Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo administrazio prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

3. Dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

4. Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzen Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

#### 7. Agiriak

– Udalak emandako eskaera orri ofiziala.

– Memoria zehatza: jarduerak, noiz egin diren, parte hartzaileak, helburuak eta baliabideak.

– Entitatearen ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, udalak emandako ereduaren.

– Estatutuen fotokopia eta dagokion elkarte eta erakundearen erregistroan legeaz eratu eta inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria. Ez dute horiek aurkeztu beharrik lehendik aurkeztuta dauzkatenean, nola eta ez diren aldatu, ez eta toki erakunde txikiek ere.

– Zinpeko aitortpena, adieraziz entitatea egunean dagoela zerga zorren ordainketan. Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, komenigarri joz gero.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epe luzaezinean, eta ohartaraziko die, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa), erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie ezen aurkeztutako agirietan emandako datuak erabiliko direla bakar-bakarrik oinarri hauek arautzen duten deialdiko urteroko dirulaguntzak emateko prozeduran.

#### 8. Dirulaguntzak emateko irizpideak

8.1 Laguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaeran (eskaera orrian eta proiektuan) adierazitako datuak balioetsiko dira.

8.2. Deialdi honetan arautzen direnez besteko jarduerak gauzatzen dituzten elkarte edo entitate irabazteko xederik gabekoek gastuen eta diru-sarreraren memoria aurkeztuko dute, diruz lagundu ahal diren jarduerari ez besteri buruz, esleipenari buruzko adierazpen erantzukizuneko batekin batera.

8.3. Hauek izango dira dirulaguntzak zehazteko eta haien zenbatekoak finkatzeko balioespen irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugen kalterik gabe:

- Programan parte hartzea aurreikusten den pertsona kopurua.
- Geografia eremua eta jardueraren hedapen eremua.
- Jardueraren egun eta ordu kopurua edo udalerrian egingo diren jardunen kopurua (ikastaroak, txapelketak, hitzaldiak, emanaldiak eta abar).
- Autofinantzaketa: Proiektua aurreikusitako finantzaketaren arabera garatu ahal izatea.
- Gastu konputagarrien aurrekontua. Proiektu bakoitzaren premia baloratuko da, jarduera garatzeko.
- Euskara: euskararen sustapena.

8.4. Diruz laguntzeko modukotzat joko dira kartelak, programak eta publizitatea, eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu beharko dira.

Ez dira diruz lagunduko:

- Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.
- Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak, nola eta ez den jotzen jarduerak zuzenean lotutako interesa duela dirulaguntza deialdi honen helburuekin. Zehazki, kasu horietan, museo, monumentu eta kultur zentroetako eta abarretako sarrerei egotzi ahal zaien kostua lagunduko da diruz.
- Bazkari gastuak.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak eskuratzeak eragindako gastuak.
- Elkartearen barne jarduera eta kudeaketaren ondoriozko gastu materialak, salbu jarduera gauzatzeko beharrezkoa den materiala. Ezta elkartearen web orria mantentzeko gastuak ere.
- Udalak eskaintzen dituen proiektuekin batera gauzatzeko proiektu paraleloak, udalaren esku hartzearen osagarri badira.
- Klubari edo elkarteari ezarritako zehapenen ondoriozko federazio gastuak.

## 9. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskaeren azterketa eta, hala badagokie, dirulaguntza ematea edo ezestea, haiek aurkezteko epea amaitutakoan egingo da.

9.1. Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna.

Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa alkatea izango da.

9.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertuko dituzte eta laguntza emango diote instrukzio organoari.

Instrukzio organoak jarduera hauek egingo ditu:

Ebazpena emateko beharrezko jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontuhartzaileari.

Eskaerak balioetsi, oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Behin eskaerak balioetsi ondoren, espedientea bidaliko zaio azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikulua betez oinarri arauak ezarri dituen kide anitzeko organoari, eta hark eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren, instrukzio organoak behin-behineko ebazpen proposamena idatziko du, behar bezala arrazoitua, zeina interesdunei jakinarazi beharko baitzaie, hamar eguneko epea emanaz alegazioak aurkezteko.

Ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik baldin eta prozeduran agertzen eta kontuan hartzen badira soil-soilik interesdunek adierazitako egitate, alegazio eta frogak. Kasu horretan, ebazpen proposamenak behin betiko izaera edukiko du.

Ebazpen proposamenak honako hauek eduki beharko ditu gutxienez: diruz lagundu ahal den proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.

Dirulaguntzak alkateak emango ditu ebazpen arrazoitu baten bidez.

Ebazpenean honako hauek azaldu behar dira gutxienez: dirulaguntza ematen zaien eskatzailea edo eskatzaile zerrenda eta gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

Halaber, ebazpenean honako hauen berri emango zaie interesdunei: zer errekurso aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judiziali aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsoak aurkeztea gorabehera, interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, aurkezteko epea bukatzen denetik; epe horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo behar dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak (29/1998 Legea, uztailaren 13koa) 9. c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, ebazpena eman duen organoari aurkeztu ahal izango zaio errekurtsua, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa) 116. eta 117. artikuluetan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran, xedatutakoarekin bat etorriz.

#### **10. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza justifikazioa egin eta onartutakoan ordainduko da.

#### **11. Justifikatzeko epea**

Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek hurrengo oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute Bernedoko Udalaren bulegoetan, 2019ko abenduaren 17a baino lehen. Jardueraren bat azken hilabetean gauzatzen bada, bereiziki justifikatuko da, eta epea 2020ko urtarrilaren 10era arte luzatuko da.

#### **12. Entitate onuradunek aurkeztu beharreko agiriak**

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria-likidazioa; datu hauek adierazi behar dira:

- Egindako jarduerak. Giza baliabideak, erabilitako materialak, egin den lekua...
- Noiz egin den: egunak eta orduak.
- Parte hartzaileak.
- Helburuak eta balioespena.

– Jarduerak sortutako sarrera eta gastu guztien balantzea. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak jarri behar dira: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako beste edozein diru kopuru (materialen salmenta, zozketak...).

– 8. artikuluan aipatzen den erantzukizunezko deklarazioa, deialdi honetan babestuz beste jarduerak gauzatzen dituzten elkarte edo entitateak badira.

2) Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak edo gastuaren beste frogagiri batzuk (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), eta ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez diren ordainagiriak, fakturak, tiketak...:

– Jaulki duena: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ.

– Hartzaillea: egoitza eta IFZ (dirulaguntzaren onuradun den entitatea, nahitaez).

– Gastuaren xedea.

– Data.

– BEZa: aplikatu diren zerga tasak edo, bestela, foru ogasunaren ziurtagiria, salbuetsita dagoela adieraziz, eta PFEZeko atxikipena, hala badagokio.

3) Erantzukizunezko deklarazioa: beste edozein administrazio, organismo edo erakunde publikok emanik xede horretarako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituenetz adieraziz. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko egitarau, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

### **13. Erakunde onuradunaren betebeharrak**

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu beharko du aurkeztutako proiektua, eta deialdi honetan ezarritako xedapenak bete.

Zehazki, gogorarazten zaio erakunde eskatzaileari derrigorrezkoa dela Bernedoko Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan eta horren inguruan egingen diren karteletan, idazkietan edo dokumentuetan. Elementu horiek guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira.

Testu elebidunak egiteko laguntza behar izanez gero, udal zerbitzuetara jo liteke.

### **14. Dirulaguntza aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, hura emateko erabakia ere aldatu ahal izango da.

### **15. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publikoren batek emandako dirulaguntza edo laguntzekin batera, ezin da inola ere izan entitate onuradunak egin duen jardueraren kostua baino handiagoa.

### **16. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak eta dagokien teknikariek aurrez txostena eginganda.

### **17. Arau hausteak eta zehapenak**

Zehapenetarako, dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko udal honek onartuta daukan zerga ordenantzan ezarritako araubidea aplikatuko da, zeina 2012ko otsailaren 13an jarri baitzen indarrean.

### **18. Legeria osagarria**

Oinarri hauetan xedatu gabekoetan, honako hauek hartuko dira kontuan: udalak onartutako ordenantza, dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen; Herri administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Bernedo, 2019ko apirilaren 10a

*Alkatea*

*ANA VILLASANTE RUIZ DE ARCAUTE*